

**Bizitegi-aldakuntzen estatistika**  
2021. urtea

**Nafarroan 50.402 bizitegi-aldaketa izan ziren 2021ean, aurreko urtean baino % 15,1 gehiago eta 2019aren antzera**

**Immigrazio-zifrek emigraziokoak gainditu dituzte ondoz ondoko zortzigarren urtez**

2022ko uztailaren 4a

Mugimendu mota guztiek gora egin dute, baina ez dira iritsi pandemiaren aurreko 2019ko mailetara. Atzerritik etorritako immigrazioen zifrak askoz ere txikiagoak dira (-% 27,4), eta orduan baino pertsona gehiagok emigratzen dute atzerrira (+% 28,8)

### BIZITEGI-ALDAKUNTZEN MOTAK

2021ean, Nafarroari eragiten dioten 50.402 bizitegi-aldakuntza erregistratu dira guztira, bizitegi-aldaketaren helmuga eta/edo jatorri Nafarroa izan dutenak, alegia.

Migrazio guztietatik, gehienak fluxu nazionaleri dagozkie: bai egoitza-aldaketak Nafarroako udalerritik bestera (20.094 mugimendu, guztizkoaren % 39,9), bai Nafarroaren eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko fluxuak (16.776 aldaketa, % 33,3). Gainerako % 26,8ak Nafarroaren eta munduko gainerako lurraldeen arteko migrazioak dira (zehazki, 13.532 bizitegi-aldaketa).

Nafarroatik beste herrialde baterako bizitegi-bajak % 16,6 igo dira 2020aren aldean. Amerikako herrialdeetarako mugimenduak dira gehienak (% 54,3).






Aurreko urtearen aldean, bizitegi-mugimendu guztiak **gora egin dute**:

- Nafarroarako sarrerak beste herrialde batzuetatik (nazioarteko immigrazioak): +% 29,8 (+1.916).
- Nafarroatik beste herrialde batzuetarako irteerak (nazioarteko emigrazioak): +% 16,6 (+739).
- Nafarroarako sarrerak beste autonomia-erkidego batzuetatik (immigrazio nazionalak): +% 4,3 (+358).
- Nafarroatik beste autonomia-erkidego batzuetarako irteerak (emigrazio nazionalak): +% 15,5 (+1.097).
- Bizitegi-aldaketak Nafarroako udalerrien artean: +% 13,9 (+2.509).

### 1. GRAFIKOA

Bizitegi-aldaketak tipologiaren arabera, 2020 eta 2021 arteko konparazioa.



Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).



## BIZITEGI-SALDOAK, -ALTAK ETA -BAJAK

**Altak.** 2021ean bizitegi-altak % 15,5 igo dira 2020arekin alderatuta. Hala, salbuespen gisa joan den urtean hautsitako goranzko joerara itzuli dira. Zifra horretan, atzerriko bizitegi-altak zertxobait handiagoak izan dira nazionalak baino. Beste autonomia-erkidego batzuetako altek pisu handiagoa dute guztizkoaren gainean.

### 1. TAULA

Alten bilakaera jatorrizko lekuaren arabera (2012-2021). Immigrazioa

Urtea	Bizitegi-altak			Urteko aldakuntzaren %		
	Guztira	Beste AE batzuetakoak	Atzerrikoak	Guztira	Beste AE batzuetakoak	Atzerrikoak
2012	13.077	8.660	4.417	-9,1	-2,2	-20,1
2013	11.777	7.841	3.936	-9,9	-9,5	-10,9
2014	12.748	8.153	4.595	8,2	4,0	16,7
2015	13.788	8.418	5.370	8,2	3,3	16,9
2016	15.209	8.230	6.979	10,3	-2,2	30,0
2017	16.993	8.550	8.443	11,7	3,9	21,0
2018	19.294	8.867	10.427	13,5	3,7	23,5
2019	20.433	8.953	11.480	5,9	1,0	10,1
2020	14.678	8.258	6.420	-28,2	-7,8	-44,1
2021	16.952	8.616	8.336	15,5	4,3	29,8

Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

**Nafarroara beste herrialde batzuetatik datozen pertsonak** gehienak atzerriko nazionalitateko migratzaileak dira (% 86,6), edo atzerrian jaio direnak (% 93,4) eta lanerako adinean daudenak (% 78,0k 16 eta 64 urte artean dituzte). Sexuaren araberako banaketak ez du alderik erakusten orokorrean, baina aurreko urtearekiko aldeak murriztu egin dira. 2021ean, sarreraren % 53,3 gizonezkoek dagozkie, eta % 46,7 emakumezkoek; 2020an, berriz, % 54,4 eta % 45,6, hurrenez hurren.

**Beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen pertsonak** ere 16 eta 64 urte bitartekoak dira batez ere (% 77,0), eta % 66,4ren nazionalitatea espainiarra da. % 40,0 atzerrian jaio dira, % 45,2 beste autonomia-erkidego batean eta gainerako % 14,9ak Nafarroan.

2014an, Espainiako eta atzerriko nazionalitateko biztanleen altak antzekoak ziren. Urte horretatik aurrera, atzeritarren altak igo egin dira, guztizkoaren bi heren izatera iritsi arte. Aurten, altak % 59,7 dira.

Beste autonomia-erkidego batzuetatik datozen alten % 33,6 atzerriko nazionalitateko pertsonak dira, eta beste herrialde batzuetatik datozen alten % 86,6k atzerriko nazionalitatea dute. Gainera, aurten nabarmenezkoa da atzeritik datozen altek pisu handiagoa dutela beste autonomia-erkidego batzuetako immigrazioek baino; antzeko zifratan geratu dira: % 49,2 eta % 50,8, hurrenez hurren.



## 2. TAULA

Altak nazionalitatearen eta jatorriaren arabera (2012-2021). Immigrazioa


	Guztira	Nazionalitatea		Jatorria	
		Espainiarra	Atzerritarra	Beste AE batekoa	Atzerrikoa
2012	13.077	44,4	55,6	66,2	33,8
2013	11.777	48,0	52,0	66,6	33,4
2014	12.748	50,0	50,0	64,0	36,0
2015	13.788	48,3	51,7	61,1	38,9
2016	15.209	44,5	55,5	54,1	45,9
2017	16.993	41,1	59,0	50,3	49,7
2018	19.294	36,4	63,6	46,0	54,0
2019	20.433	32,7	67,3	43,8	56,2
2020	14.678	42,7	57,3	56,3	43,7
2021	16.952	40,3	59,7	50,8	49,2

Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

Alten ekarpen handiena egin duten nazionalitateen artean, Marokotik etorritako biztanleen ehunekoak behera egin du atzerritarren guztizkoarekiko (% 22,7), eta kolonbiarren etorrerak gora egin du (% 13,2). Errumaniar nazionalitateko alten ehuneko pisuak, berriz, egonkor jarraitzen du (% 5,8).

## 2. GRAFIKOA

Hiru nazionalitate nagusien altak Nafarroan (2012-2021). Immigrazioa



Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

**Bajak.** 2021ean irteerek gora egin dute, baina alten eta bajen arteko aldeak egonkor mantendu dira. Hala, migrazio-saldoa zertxobait igo da Nafarroan: 3.158 pertsonatik 3.596 pertsonara igo da.



Bizitegi-bajak % 15,9 igo dira aurreko urtearen aldean. 2012tik izandako hazkunderik handiena da. Beste autonomia-erkidego batzuetara irteteko mugimenduek % 15,5 egin dute gora, eta atzerrirako mugimenduek % 16,6.

### 3. TAULA

Bajen bilakaera helmuga-lekuaren arabera (2012-2021). Emigrazioa

	Bizitegi-bajak			Urteko aldakuntzaren %		
	Guztira	Beste AE batzuetara	Atzerrira	Guztira	Beste AE batzuetara	Atzerrira
2012	13.866	7.872	5.994	13,3	-0,8	39,3
2013	14.228	8.064	6.164	2,6	2,4	2,8
2014	12.530	7.491	5.039	-11,9	-7,1	-18,3
2015	12.016	7.160	4.856	-4,1	-4,4	-3,6
2016	11.511	6.872	4.639	-4,2	-4,0	-4,5
2017	11.600	7.275	4.325	0,8	5,9	-6,8
2018	11.471	7.699	3.772	-1,1	5,8	-12,8
2019	12.180	8.145	4.035	6,2	5,8	7,0
2020	11.520	7.063	4.457	-5,4	-13,3	10,5
2021	13.356	8.160	5.196	15,9	15,5	16,6

Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

**Nafarroatik beste autonomia-erkidego batzuetara irtendakoak** 16 eta 64 urte bitarteko pertsonak dira (% 79,4), Espainiako nazionalitatekoak (% 70,0) eta Espainian jaiotakoak (% 62,9).


**Nafarroatik atzerrira irtendakoak**, batez ere, 16 eta 64 urte bitarteko pertsonak dira (% 82,1), atzerriko nazionalitatekoak (% 81,4) eta beste herrialde batean jaiotakoak (% 87,3).

**Saldoak bizitegi-mugimenduen arabera.** Saldoak bizitegi-alten eta -bajen arteko aldea dira. Nafarroarako sarrerak (16.952) irteerak baino gehiago dira (13.356). Beraz, 3.596 sarrerako **saldo positiboa** izan da (2020. urtekoaren antzekoa). 2020. urtearekiko aldea da 2021ean fluxu nazionalak eta nazioartekoak ez direla antzekoak. Atzerriarekiko saldoak 3.140 sarrerako balantze positiboa du, eta Nafarroako sarrera-irteeren saldoak 456 biztanle berri ekarri ditu, gainerako erkidegoekin alderatuta.



### 3. GRAFIKOA

Bizitegi-aldakuntzaren araberako saldoa guztira (2012-2021)



Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

## BARNEKO BIZITEGI-ALDAKUNTZAK

Nafarroarako **20.094** barne-migrazio izan dira 2021ean, hau da, urte horretan erregistratutako aldakuntza guztien % 39,9. Bizitegi-aldakuntza horiek % 14,3 igo dira (+2.509) aurreko urtearen aldean.

**Lurralde-banaketari** dagokionez, eta "Nafarroa 2000" zonifikazioaren arabera, barneko fluxu gehienak biztanlegune nagusiak dauden eremuetan biltzen dira: % 57,7ren jatorria eta helmuga 'Iruñea' eremua da eta % 6,1, berriz, 'Tutera' eremuan jatorria eta helmuga duten mugimenduei dagozkie. Hirugarren lekuan 'Iruñe'tik 'Pirinio'etarako migrazioak daude (guztizkoaren % 2,6). Eta, justu ondoren, laugarren lekua partekatzen dute 'Ipar-mendebaldea' eremu barruko eta 'Erribera' eremu barruko migrazioek (guztizkoaren % 2,5 bakoitza). Garrantzi txikiagoko beste fluxu batzuk 'Ipar-mendebaldea' - 'Iruñea' migrazioetakoak dira, baita honako bi eremu hauetakoak ere, bi noranzkoetan: 'Iruñea' - 'Nafarroako Eki-erdialdea' eta 'Nafarroako Eki-erdialdea' - 'Iruñea'.



#### 4. TAULA


Barneko bizitegi-aldakuntzak jatorriko eta helmugako eremuaren arabera (2021). Banaketa portzentuala

		JATORRIKO 2000 EREMUA							
		GUZTIRA	IPAR-MENDEBALDEA	PIRINIOAK	IRUÑEA	LIZARRERRIA	NAFARROAKO EKI-ERDIALDEA	ERRIBERA	TUTERA
HELMUGAKO 2000 EREMUA	Guztira	100,0	5,6	2,6	68,4	4,5	4,0	6,4	8,5
	IPAR-MENDEBALDEA	5,2	2,5	0,1	2,4	0,1	0,0	0,0	0,1
	PIRINIOAK	2,9	0,1	0,3	2,2	0,0	0,1	0,1	0,0
	IRUÑEA	68,8	2,6	2,0	57,7	1,4	2,1	1,7	1,3
	LIZARRERRIA	4,6	0,1	0,0	1,6	2,3	0,2	0,4	0,1
	NAFARROAKO EKI-ERDIALDEA	4,2	0,1	0,1	2,2	0,1	1,1	0,5	0,1
	ERRIBERA	5,6	0,1	0,0	1,3	0,5	0,4	2,5	0,8
	TUTERA	8,7	0,1	0,0	1,1	0,1	0,1	1,1	6,1

Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

Barneko fluxu horietako gehienak biztanleria handieneko udalerrien eremuetan biltzen dira. Jatorriko udalerriaren arabera, Iruñean (% 27,8), Barañainen (% 5,6), Burlatan (% 5,3) eta Eguesibarren (% 5,0) izan dira aldaketa nagusiak. Eta, helmugako udalerriaren arabera, Iruñerantz (% 26,7), Burlatarantz (% 8,0), Eguesibarrerantz (% 5,4) eta Barañainerantz (% 4,0) izan dira aldaketak. Ordena kasu guztietan aurreko urtekoaren berdina da, eta zifrak antzekoak dira ehunekoetan, Burlatan izan ezik. Izan ere, Burlatak igoera handia izan du helmugako udalerrigisa, eta ehuneko 2,5 puntu irabazi ditu 2020aren aldean.

Aurten, barne-dinamikak aski aldatu dira. Iruñea da barneko migrazio-saldoa murriztu duen eremu bakarra, aurreko urtearekin alderatuta, eta saldo negatiboa izan du (-78). Gainerako eremuek, berriz, igo egin dute beren barne-migrazioekiko alta-baja ratioa. 'Ipar-mendebaldea' eremua, Nafarroako beste eremu batzuetara joaten diren biztanleak galtzetik (-52), biztanleria areagotzera igaro da, erkidegoko beste eremu batzuetatik etorritakoak pertsonekin (+68). Bestalde, 'Erribera' eremuak barneko migrazio-saldo positiboa izaten jarraitzen du, aurreko urtekoa baino handiagoa baitu (+166). Gainerako eremuek saldo negatiboak dituzte, baina 2020an baino neurri txikiagoan. 1etik gertuko alta-baja ratioak adierazten du sarrera eta irteerako mugimenduen artean berdintasuna dagoela. Ildo horretatik, 'Pirinioak' eta 'Nafarroako Eki-erdialdea' ez beste eremu guztiek 1 inguruko ratioa dute.





## 5. TAULA

Barneko bizitegi-aldakuntzak "Nafarroa 2000" eremuaren eta aldakuntza motaren arabera. Altak-baja ratioen bilakaera (2016-2021).

2000 EREMUA	Altak (immigrazioak)		Bajak (emigrazioak)		Ratioa 2016	Ratioa 2017	Ratioa 2018	Ratioa 2019	Ratioa 2020	Ratioa 2021
	Kasuak	%	Kasuak	%						
Ipar-mendebaldea	1.118	5,6	1.050	5,2	1,15	1,08	1,13	1,06	0,95	1,06
Pirinioak	517	2,6	574	2,9	1,16	1,33	0,94	1,02	0,78	0,90
Iruñea	13.747	68,4	13.825	68,8	0,93	0,95	0,96	0,96	1,03	0,99
Lizarreria	901	4,5	917	4,6	1,13	1,06	0,96	1,01	0,88	0,98
Nafarroako EKI-erdialdea	807	4,0	848	4,2	1,31	1,12	1,10	1,15	0,92	0,95
Erribera	1.293	6,4	1.127	5,6	1,32	1,25	1,32	1,20	1,09	1,15
Tutera	1.711	8,5	1.753	8,7	1,03	1,04	1,03	1,04	0,96	0,98
Guztira	20.094	100,0	20.094	100,0	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00	1,00

Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

## BIZITEGI-ALDAKUNTZA NAZIONALAK

Nafarroan eta beste autonomia-erkidego batzuetan **16.776** bizitegi-aldakuntza izan ziren 2021ean, migrazio-mugimendu guztien % 33,3. Migrazio horietatik, altak 8.616 izan ziren, eta bajak 8.160. Horrela, 456 bizitegi-mugimendu izan ziren beste autonomia-erkidego batzuekin, aurreko urtean baino 739 gutxiago.

**Jatorriko autonomia erkidego** ohikoenak hauek dira: Euskal Autonomia Erkidegoa (% 18,5), Errioxa (% 11,7), Madrilgo Erkidegoa (% 10,3) eta Aragoi (% 10,0).

Nafarroatik irteteko **helmuga** ohikoenek sarreraren antzeko joera dute, baina ordena desberdinarekin. Mugimendu horiek Euskal Autonomia Erkidegora (% 17,6), Madrilgo Erkidegora (% 13,2), Aragoira (% 10,7) eta Errioxara (% 9,8) doaz.



## 6. TAULA

Bizitegi-aldakuntza nazionalak, helmugako edo jatorriko autonomia-erkidegoaren eta mugimendu motaren arabera sailkatuta (2021)

Autonomia-erkidegoa	Altak (sarrerak Nafarroara beste AE batetik)	Bajak (irteerak Nafarroatik beste AE batera)
	Jatorria	Helmuga
	Guztira	Guztira
Andaluzia	9,7	9,3
Aragoi	10,0	10,7
Asturias (Printzerria)	1,4	1,5
Balears (Illes)	1,9	1,7
Kanariak	2,5	2,7
Kantabria	1,2	1,6
Gaztela eta Leon	5,8	5,7
Gaztela-Mantxa	3,6	2,2
Katalunia	9,4	9,8
Comunitat Valenciana	6,5	7,1
Extremadura	1,5	1,2
Galizia	2,1	2,9
Madril (Erkidegoa)	10,3	13,2
Murtzia (Eskualdea)	3,5	2,4
Euskal Autonomia Erkidegoa	18,5	17,6
Errioxa	11,7	9,8
Ceuta	0,2	0,1
Melilla	0,3	0,3
<b>Guztira</b>	100,0	100,0

Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

## NAZIOARTEKO BIZITEGI-ALDAKUNTZAK

2021ean, beste herrialde bat helmuga edo jatorri izan duten 13.532 bizitegi-aldakuntza erregistratu dira guztira. Horietatik 8.336 altak dira (% 61,6), eta gainerako 5.196ak bajak (% 38,4). Hala, 3.140 mugimenduko saldo positiboa atera da.

2021ean, zazpigarren urtez jarraian, alden ondoriozko aldakuntzek bajen ondoriozkoak gainditu dituzte. 2012-2014 aldian, Nafarroatik atzerriranzko irteerak beste herrialde batzuetatik izandako sarrerak baino gehiago izan dira, baina gainerako urteetan altak gehiago izan dira bajak baino.



## 7. TAULA

Kanpoko bizitegi-aldakuntzak motaren arabera (2012-2021)

Urtea	Aldakuntzak guztira	Kanpoko aldakuntzak	Guztiarekiko %	Kasuak motaren arabera		Ehuneko horizontalak	
				Altak	Bajak	Altak	Bajak
2012	44.167	10.411	23,6	4.417	5.994	42,4	57,6
2013	44.042	10.100	22,9	3.936	6.164	39,0	61,0
2014	42.708	9.634	22,6	4.595	5.039	47,7	52,3
2015	42.373	10.226	24,1	5.370	4.856	52,5	47,5
2016	43.101	11.618	27,0	6.979	4.639	60,1	39,9
2017	46.012	12.768	27,7	8.443	4.325	66,1	33,9
2018	49.076	14.199	28,9	10.427	3.772	73,4	26,6
2019	51.614	15.515	30,1	11.480	4.035	74,0	26,0
2020	43.783	10.877	24,9	6.420	4.457	59,0	41,0
2021	50.402	13.532	26,8	8.336	5.196	61,6	38,4

Iturria: Nastat, Bizitegi-aldakuntzen estatistikatik abiatuta (INE).

**Atzerritik Nafarroara sartzeko mugimendu** gehienak Amerikako herrialdeetakoak dira (% 58,0). Ondoren, Europako (% 22,0), Afrikako (% 15,8) eta, neurri txikiagoan, Asiako (% 4,0) herrialdeak datoz.

**Nafarroatik beste herrialde baterako bizitegi-bajak** kontinente hauetako helmugako herrialdeetara doazen pertsonenak dira (informazioa dagoen kasuetan): Europa (% 58,6), Amerika (% 34,2) eta, neurri txikiagoan, Afrika (% 2,8) eta Asia (% 2,7).



## OHAR METODOLOGIKOA

Bizitegi-aldakuntzen estatistika biztanleriaren migrazio-mugimenduen inguruan informatzen duen estatistika-iturrietako bat da.

Estatistika honen prestaketa abian jartzen da bizitegi-aldaketa bakoitzaren ondoren izaten diren eta udalerrri bakoitzeko udalean kudeatzen diren erroldako altekin eta bajekin. Bizitegi-mugimendu edo "bizitegi-aldakuntza" bat kontsideratzeko, gutxienez bi udalerriren artean egiten diren helbide-aldaketak hartzen dira kontuan. Horrela, estatistika honen xedeetarako, udalerrri berean eginiko bizitegi-aldaketak ez dira kontuan hartzen bizitegi-aldakuntzatzat.

Bizitegi-aldaketa horiek hileroko jakinarazten zaizkio Estatistikako Institutu Nazionalari (INE), eta hark, informazioa araztu ondoren, urtero aitortu diren bizitegi-aldaketei buruzko fitxategi bat sortzen du.

Nafarroari eragiten dioten datuen analisi xehatua posible da INErekin dagoen lankidetzaren bati esker. Hitzarmen horren bidez, INEk mikrodatuak lagatzen dizkio Nafarroako Estatistika Erakundeari. Informazio horrek aukera ematen du Nafarroako egoiliarrei eragiten dieten eta txosten honetan azaltzen diren migrazio-mugimenduen berezitasunak zehatz-mehatz aztertzeko.

Migrazioak analizatzeko, udal-erroldetan jasotako informazioa erabiltzen da. Informazio horri esker, migratzen duen biztanleriaren oinarritzko karakterizazioa egin daiteke, honako aldagai hauetan oinarrituta: sexua, data eta jaioterria (herrialdea, atzerrian bada), nazionalitatea, eta mugimenduaren jatorria eta helmuga. Jatorriaren eta helmugaren arabera sailkatutako aldakuntzek aukera ematen dute bizitegi-aldaketak identifikatzeko: erkidego bereko udalerrien artekoak, Espainiako gainerako udalerrien artekoak eta nazioarteko mugimenduak.

**Eragiketa mota:** jarraitua, urterokoa.

**Biztanleria-esparrua:** Espainia jatorri eta/edo helmuga duten bizitegi-aldakuntza guztiak.

**Geografia-esparrua:** lurralde nazional osoa.

**Erreferentzia-epea:** urte naturala.

**Biltzeko metodoa:** zehatza, administrazio-erregistro batetik abiatuta.



ARGIBIDE GEHIAGO LORTZEKO

Nastat

Bizitegi-aldakuntzen estatistika. 2021. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00